



Europar konplizitatea Israelen okupazioarekin: palestinarren lan duinerako eskubidea urratuz

Txostenaren laburpena

52 urte baino gehiagoz, Israelak okupatutako lurralde palestinarreko herria eta ekonomia okupazio militar bortitzaren menpe jarri ditu. Israel ustiapen-politiken sustatzaile da, apartheid krimena barne, bere interes geopolitiko eta ekonomikoaren mesedetan.

Horrek eragin suntsitzailea izan du Palestinako bizitzan, nahi kolektiboetan eta garapen ekonomikoan. Gaur egun, Palestinako populazioak langabezia kronikoa pairatzen du "Depresio Handiaz geroztik gutxitan ikusi den maila batean"¹, eta bere ekonomia estrukturalki Israelen menpekota da biziraupenerako eta enplegurako.

Txosten honek argi uzten du Israelgo errepresio eta esplotazio sistema multifazetikoa, langile palestinarrei lanerako eskubidea erreklamatzeko eragozten diena. Bertan, bere borroka Israelgo erregimen kolonialaren testuinguruan kokatzen da, aldi berean, Europar Batasunak (EB) eta Europako konplizitate korporatiboak errealitate hau betikotzen dutela azpimarratzen delarik.

Gaur egun lurralde okupatuko (Gaza eta Zisjordanian) biztanle palestinarrek erregimen militar basatia pairatzen dute, eta errealitate ekonomiko oso larri bati aurre egiten diote, baita langabezia masibo bati ere. 2018an, Palestinako lurralde okupatuak munduko langabezia-mailarik handiena izan zuen,%40.8ko tasarekin. Zisjordanian, lan indar osoaren %17,6 inguru eta emakumeen %28,2 zeuden lanik gabe. Gazan, datuek errealitatea are bortitzagoa dela erakusten dute: langabezian daude ia bi langiletik bat, eta emakumeen artean bi heren daude langabezian. Hazkunde ekonomikoaren mailak negargarriak dira, eta Palestinako Aginte Nazionala atzerriko transferentzien menpe dago kronikoki.

Horrek inpaktu suntsitzailea eta ukigarria du pertsonen bizitzan. 2017ko azken datuen arabera, Palestinako biztanleriaren %29,2 inguru pobrezia mugaren azpitik bizi zen; Gazako biztanleen %53, berriz, pobrezian. Lana izateko zortea duten pertsonak merkatutik eta zerbitzuetan lan egiten dute batez ere. Enplegatutako pertsona gehienek, %62,6k baino gehiagok, sektore pribatuan egiten dute lan. Munduko beste leku batzuetan bezala, sektore pribatuan enplegua oso esplotatzailea izan daiteke. Sektore pribatuan lan egiten dutenen % 30 inguruk gutxienezko soldata baino gutxiago kobratzen dute (hilean 359 €), hau da, Palestinako pobrezia-lerro ofizialaren azpitik (hilean 611 € bost pertsonako etxe baterako).

Sektore publikoan zein pribatuan, langileen oinarrizko eskubideak ez dira errespetatzen, eta sindikatuen dentsitatea oso txikia da (%19,3).

Biztanleria okupatu baten gatibutasun ekonomikoa egituratuz.

Palestinako ekonomiaren barruan lan egiteko aukerarik ez izateak Israelgo merkatuan lana bilatzera bultzatzen ditu palestinarren; bai legez kanpoko asentamenduetan, bai Israelen barruan.

100.000 langile palestinar baino gehiago daude (Palestinako lan-indarraren %13) Israelgo merkatuan baldintza prekarioetan eta esplotazio-baldintzetan ari direnak. Errealitate hori **Palestinako menpekotasun artifiziala sustatzeko ezarritako Israelgo politiken** beste aurpegia eta emaitza zuzena da. Politika horiek

¹UN Conference on Trade and Development, 'UNCTAD Assistance to the Palestinian People: Developments in the Economy of the Occupied Palestinian Territory,' 12 September 2017:1.

1993ko Osloko Akordioen bidez finkatu dira, eta haren eranskin ekonomikoa, Parisko protokoloa, Israelen eta Palestinako Aginte Nazionalaren (PAN) arteko harreman ekonomikoak arautzen dituen dokumentu nagusia da. Oslok Palestinako lurraldea A eta B eremu zatitu eta isolatuetan banatu zuen, PANk kontrolatuta, eta Israeli C eremu handienaren gaineko kontrola eman zion, Palestinako garapen ekonomikoaren edozein ikuspegitarako ezinbestekoa dena. C eremuak akuifero nagusiak ditu, baita Zisjordaniako nekazaritza lur emankorrenak ere. C eremua Israeliek hartu du bere gain, baina duela gutxi Trumpek iragarri duen "bake planak" PANk hau formalizatu eta onartzea proposatu du.

C eremuak, halaber, Zisjordania okupatuan dauden 2.000 harrobi hektareatik erdia baino gehiago hartzen ditu. Biztanle palestinarrek horiek eskuratzeko eta erabiltzeko duten ezintasunak urtean batez beste 806 milioi euroko kostua ekarri dio Palestinako ekonomiari. **Palestinarrei sarbidea ukatzen zaien bitartean**, Israeliek Zisjordanian administratutako harrobiek 12 milioi tona harri, legar eta dolomita inguru ekoizten dituzte. Handik ateratako material ia guztia Israelgo eraikuntzaren industriarako, asentamenduetarako eta Israeliek Zisjordanian duen azpiegiturarako erabiltzen da.

Nazioarteko zuzenbidea urratuz, Europako enpresak ere arpilatze horretan sartuta daude. Adibidez, HeidelbergCement konpainia alemaniarrek harri harrobi bat ustiatzen du Zisjordanian.

Antzeko egoera bat gertatzen da Jordango Haranean, aspaldi "Jordaniako elikagai saskia" deitua, bertako fruta eta barazkien %60 ekoizteagatik. Orain, Jordango Harana ia eskusiboki kolonoen nekazaritza enpresen mesedetan ustiatzen da, eta produktuen %66 esportatu egiten da.

Ustiapen- eta arpilatze-politika zuzen horiekin batera, Palestinako lurraldearen ekonomia are ahulago dago ondorengoagatik:

1. Azpiegitura (ura, argindarra eta telekomunikazioak barne) Israelgo agintariak eta enpresek kontrolatzen dute, eta horrek Israeletikiko menpekotasun ekonomiko handiagoa sortzen du. Sektore horiek enplegatzaile potentzial handiak izan litezke, eta haien hornidura desegokiak eragin negatiboa du enplegua sortzen duten beste industria produktibo batzuetan, baita zerbitzu publikoetan eta bizi-kalitatean ere.

2. Israel eta Palestinaren arteko merkataritza eta finantza harremanak arautzen dituen Parisko Protokoloak are gehiago ahultzen du Palestinako ekonomia:

- Moneta palestinar independente bat ez izateak, Israel, finantza aldetik, onuradun ateratzea eragiten du Palestinara bideratutako dirua, nazioarteko laguntza barne, shekel israeldarretara aldatzea dela medio.
- Ezarritako aduana batasunak eta mugen gaineko kontrolak lurralde palestinarerako edozein inportazio eta esportazio Israeldik igaro behar dela esan nahi du. Inportazioen eta esportazioen gaineko zergak Israeliek biltzen ditu.
- Israelgo agintariak %3 kendu eta gero hilero Palestinako Aginteari transferitu behar dizkion aduanetako muga-zergak maiz atxikitzen ditu presio politikorako modu gisa.

Hauek ez dira kopuru txikiak. 2018an, diru-sarrera fiskal horiek PANren diru-sarrera guztien %65 edo Barne Produktu Gordinaren (BPG) %15 izan ziren.

Izan ere, Parisko Protokoloak PANrentzat garrantzitsua den diru iturri baten gaineko kontrola Israeli eman zion, eta, beraz, baita bere biziraupenaren gainekoa ere.

Baldintza hauek ere nabarmen handitzen dituzte kostuak Palestinako enpresentzat. Karga kudeatu, biltegitatu eta garraiatzeko enpresa israeldarrek kudeatzen dituzte Palestinarako bidalketak. Palestinako konpainiek ere Israelgo konpainiei segurtasun baimena ordaindu behar diete, Israeliek bidalketa bakoitzerako eskatzen duena. Horrela, **Israelen bidez ondasunak transferitzeak %5-10 gehitzen dio bidalketa bakoitzaren kostuari.**

Aduana-batasunak inportazioen eta esportazioen kostua nabarmen handitzen du, eta nazioarteko merkatuan Palestinako produktuen lehiakortasuna ahultzen du, Israel kontsumitzaile nagusi gisa utziz. UNCTADen kalkuluen arabera, 1972tik 2017ra bitartean, Israelek Palestinaren esportazio guztien %79 bereganatu zituen, eta Israelen inportazioak Palestinara, berriz, %81koak izan ziren. **Funtsean, Parisko protokoloak biztanleria okupatu baten gatibutasun ekonomikoa egituratzen du.**

Palestinako ekonomiaren des-garapenak eta gatibutasunak eta Israelen menpekotasun ekonomikoak langabezia eta azpienplegu maila handiak eragin dituzte Palestinan. Ondorioz, **langile palestinar asko eta asko legez kanpoko asentamenduetan eta Israelen dauden enplegatzaile israeldarrentzat lana bilatzera behartuta ikusten dira.**

Legez kanpoko asentamenduetan eta Israelen lan egiten duten Zisjordaniako langile gehienek eraikuntzaren sektorean lan egiten dute (% 66,4), palestinar eta migratzaileen osasunari eta segurtasunari dagokienez duen historia eskasagatik ezaguna. Zisjordaniako langileek lan horiekiko duten mendekotasunak, Israelek bere baimen-sistema errepresiboaren eta okupazio-azpiegituraren bidez lanerako sarbidea kontrolatzearekin batera, oso ahul uzten ditu langileak ustiapen eta lan-baldintza eskasen biktimak izateko.

Europako korporazio- eta gobernu-konplizitateak **maila anitzeko zapalkuntza- eta ustiapen-sistema horretan ere laguntzen du**, zigorgabetasun-kulturari laguntzen baitio, eta, aldi berean, are gehiago indartzen baitu Israelgo ekonomia, herri palestinarren kontura. Horrek zuzenean eragozten du enplegu duinak sortzea, eta zuzenean laguntzen du langileen eskubideak ukatzen.

Europar Batasuneko (EB) merkatua Israelgo asentamenduetako produktuei irekitzeak, EB-Israel Elkartze-akordioan jasotako babes-faltak erraztuta, adibidez, zuzenean indartzen ditu asentamenduetako enpresak, etxalde horietan lan egiten duten langile palestinarren esplotazioa eta, oro har, aberastu egiten du finantzarioki palestinarren utzikeria eta garapen ezan oinarritutako sistema.

Era berean, Israelgo konpainia militarrek Ebko dirulaguntzak eskuratu ahal izateak (adibidez, Horizonte 2020) Israelen industria-komplexu militar hilgarria indartzen du zuzenean. Israelek Gazako Itzulera Martxa Handian manifestari baketsuen aurka egindako erasoek buruz Nazio Batuen Erakundeak² egin berri duen txostenak erakusten du Israelgo militarrek nahita eraso zietela zerbitzu medikoetako eta komunikabideetako langileei lanean ari zirela.

Txostenak argi uzten du Israelgo arma konpainiek eta legez kanpoko asentamenduetan ari direnek Europar Batasunaren finantzaketa jasotzeko, EB konplize zuzena bihurtzen duela palestinarren eskubideen urraketetan, baita bizitzeko, oparotasun ekonomikorako eta garapenerako eta lan duinerako eskubideen bortxaketan ere.

Europako mugimendu sindikalari dei egiten diogu:

1. Israelen aurkako bi norabideko enbargo militarreko mozioak eta laguntza-kanpainak aprobatzeko.
2. Nazioarteko zuzenbidea eta palestinarren eskubideak urratzen dituzten konpainiei presio egitea:
 - Kanpaina eraginkorrek eginez, sindikatuak konpainia konplizeekin egin ditzaketen kontratuak amaitzeko.
 - Langileei lagunduz, enplegatzaileei konplizitatea amaitzeko eska diezaieten.
 - Pentsio-funtsekin lan eginez, palestinarren eskubideak urratzen dituzten enpresetan egiten duten inbertsioa amai dezaten.
3. Sindikatuaren barruan eta lantokietan, langile palestinarren lan-baldintzei buruzko kontzientzia sortzeko neurriak hartzeko. Bestalde, Palestinan eta Israelen langile palestinarren eskubideak hobetzeko lan egiten duten sindikatuak eta beste erakundeei babesa emateko.

2 http://www.eccpalestine.org/wp-content/uploads/2019/03/A_HRC_40_74.CONFadvcopyPalestine.pdf

Europar Batasunari eskatzen diogu:

1. EB-Israel Elkartzeko Akordioa bertan behera uzteko, Israelek nazioarteko zuzenbidearen arabera dituen betebeharrak bete eta Palestinako biztanleen eskubideen urraketari amaiera eman arte.
2. Israelgo industria-komplexu militarrean sartuta dauden konpainia eta erakunde israeldarrak EBren edozein ikerketatik eta finantzatutako proiektuetatik baztertzeke.
3. Israelek herritar palestinarren eskubideak eta nazioarteko zuzenbidea urratu izanaren konplize diren enpresek EBk dituen kontratu-akordio guztiak amaitzeko.
4. Israelgo asentamenduetako produktuen salmenta debekatzeko Europako merkatuetan.
5. Europako enpresek Israelgo asentamenduen enpresek inongo negozioak egin ditzaten saihesteko.

Txostena Palestinan Justiziarako Europako Sarea Sindikalak ([ETUN](#)) enkargatu du.

Irakurri txosten osoa [hemen](#).